

Zuzenketa eskubidea

Zertan datza?

Herritarrok eskubidea daukagu edozein fitxategitako arduradunari eskatzeko zuzendu edo osatu ditzala guri buruzko datu okerrak, desegokiak, osatugabeak edo gehiegizkoak.

Aplikatu beharreko araudia

- 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, Datu Pertsonalak Babesteari buruzkoa, [16. artikulua](#)
- 2/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, datu pertsonalen fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzkoa, [8. artikulua](#)
- [308/2005 Dekretua](#), urriaren 18koa, datu pertsonaletarako jabetza publikoko fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legea garatzen duena, 9. artikulua
- [1332/94 Errege Dekretua](#) (pdf, 23 kB), 15. artikulua

Administrazio edo erakunde publiko baten aurrean eskubidea erabiltzea Zuzenketa eskubidea erabiltzeko baldintzak

- Zuzenketa eskubidea erabiltzea nahitaez norberak egin beharrekoa da eta horregatik, interesdunek zuzenean gauzatu beharrekoa, fitxategien arduradun/titular bakoitzaren aurrean.
- Fitxategi baten dauden datu pertsonalak zuzentzeko eskabidea, datuak zuzentzeko edo osatzeko asmoz zure datuak tratatzeko aginpidea duen Administrazioaren fitxategiaren arduradunaren aurrean egiten da
- Fitxategiaren arduradunaren helbidea zein den ez badakizu, Datuak Babesteko Euskal Bulegora jo dezakezu eta informazio hori eskatu 945 016230 telefonoan, avpd.@avpd.es posta elektronikoan, edo www.avpd.es web orriaren bitartez
- Epeak
- Arduradunak eskaeragileari erantzun egin beharko dio, eskabidea jasotzen den egunetik **gehienez ere 10 eguneko epean**.
- Epe horretan zuzenketa eskabideari berariaz erantzun ezean, eskaera ukatutzat eman beharko da.
- Zuzenketa eskubidearen eskabidea onetsi egiten bada, arduradunak **zuzenketa egin beharko du** eskabidea jasotzen den egunetik **hamar eguneko epean**.
- Datuak zuzentzea **doakoa** da.

Nombre de archivo: Documento1
Directorio:
Plantilla: C:\Documents and Settings\EJ00873T\Datos de programa\Microsoft\Plantillas\Normal.dot
Título:
Asunto:
Autor: EJ00873T
Palabras clave:
Comentarios:
Fecha de creación: 30/03/2010 10:47:00
Cambio número: 1
Guardado el:
Guardado por:
Tiempo de edición: 1 minuto
Impreso el: 30/03/2010 10:49:00
Última impresión completa
Número de páginas: 1
Número de palabras: 398 (aprox.)
Número de caracteres: 2.194 (aprox.)